



Azpeitiko Udala

COVID-19aren bigarren oldarraldiak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko neurria.

-Tokiko ekonomia babesteko eta indartzeko diru-laguntza (4/4)-

2020ko urtarrilean Munduko Osasunaren Erakundeak deklaratu zuen Covid-19 gaitzak eragindako egoerak nazioartean osasun publikoko larrialdia zekarrela. Erakunde horrek 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemiatzat jo zuen gaitzak sortutako osasun publikoko larrialdi egoera hori, eta Espainiako gobernuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez osasun-alerta deklaratu zuen Espainiako estatu osorako.

COVID-19ak 2020. urtearen nondik norakoa markatu zuen, eta bere eragina gizarte eta lan-munduan nabarmena izan bazen, zenbait sektoretan - eta bereziki zerbitzuen sektorean- jarduera ezin izan zen normaltasunez aurrera eramane. Ostalaritza esparruan jarduerak denbora batez ixtera derrigortuak izan ziren, eta herriko merkataritza establezimendu txikiek murrizketak jasan zituzten.

COVID 19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa den abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauak ezarritakoarekin bat Udalbatzak **2021eko otsailaren 23an** egindako bilkuran osasun krisiak bereziki eragindako kolektiboak zehaztu zituen* eta horiek laguntzeko zenbait neurri ekonomiko hartu zituen.

*Jarduera horien artean daude herriko jantzi, zapata, bitxi dendak, ileapaindegi, tindategi, bidai agentzia eta ostalaritza jarduerak).

Udal-tasetan onartu ziren bonifikazioak kontuan izanik, pandemiaren eragina jasan duten jarduera hauek 2021. ekitaldian ez dituzte zaborraren, terrazen eta toldoen faktura ordaindu behar. Modu berean, Ogasun batzordeak 2021eko otsailaren 8an laguntza horien osagarri moduan jarduera titularrek 2021. ekitaldian ordaindu beharreko Uraren zerbitzuan laguntzak ematea proposatu zuen.

Laguntza horiek bideratzeko, Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioa -Gipuzkoako Urak- adostasun batera heldu dira. Horrela, jarduera titularrek ur-zerbitzuagatik egindako gastua ordainduko dute, eta Udalak egindako ordainketa horiek lagunduko ditu, beti ere ohiko kontsumoaren muga mantenduz.

Udal Zergetako teknikariak onuradunak izango diren jarduerak lehen hiruhilekoan egin duten ordainketen informazioa eman du, eranskin

moduan jaso dena espedientean, eta Alkatetzari proposatu dio laguntza horiek onartzea.

Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2c) artikulua eta Udalaren Dirulaguntza udal-agintarua kontuan izanik, dirulaguntzen izaera ez ohikoa da, COVID-19aren ondorioak bereziki jasan duten herriko merkataritza eta ostalaritza kolektiboen egoera babestea eta esparru hauetan ekonomia sustatzea helburu dutena, aldi berean tokiko ekonomia indartuz. Diru-laguntzak emateko prozedura zuzena bideratuko da, beraz.

Udal Zergetako teknikariak egindako azterketa kontuan hartuta; Ogasun eta Langileria Batzordeak gaia aztertu ondoren, eta Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak emandako eskumenak aintzakotzat hartuta, Azpeitiko Udalaren alkate-udalburua naizen aldetik,
ERABAKI DUT:

1.- Covid-19 gaitzaren eragina jasan duten herriko merkataritza eta ostalaritza jarduerak onartzea.

2.- Jarduera horien titularrak uraren-zerbitzuagatik 2021eko laugarren hiruhilekoan egin dituzten tasaren ordainketak diru-laguntza moduan onartzea. Guztira 27.848,43 €.

*Eranskin moduan jaso dira jarduerak eta bakoitzak egindako gastua.

3.- Kontuhartzailletza Sailari eskatzea onuradun diren jardueren titularrei kasu bakoitzean egindako gastua ordaintzea diru-laguntza moduan.

4.- Erabaki honen berri Udalaren web orrian eta Estatuko diru-laguntzen plataforman emango da.

Azpeitian, 2022ko maiatzaren 5a

